

D<sup>r</sup> BIMENDI

4

VOULEZ-VOUS  
PARLER LE BASQUE ?

DESSINS DE TXIKI

EDITIONS J. MARIE

16, Boulevard Thiers

SAINT-JEAN-DE-LUZ









M-37849  
R-42906

ATV  
21686



# Orthographe de la Langue Basque.

## LETTRES

## PRONONCIATION

a	comme en français.
b	» »
d	» »
e	comme l'é français.
f	comme en français ; on l'emploie très peu.
g	comme ga, gue, gui, go, gou.
h	un peu aspiré.
i	comme en français.
j	comme y.
k	comme en français.
l	» »
ll	comme l mouillé.
m	comme en français.
n	» »
ñ (ou gn)	comme gn en français.
o	comme en français.
p	» »
r	doux devant une voyelle : urondoa ; plus fort devant une consonne : arno.
rr (ou í)	son fort.
s	son spécial un peu plus fort que celui du s français.
t	comme en français.
tt	t mouillé.
tch ou tx	son français de tch.
tz	son français de ts.
u	son français de ou.
ch ou x	comme en français.
z	son français de ç.



## Accent Tonique.

Dans quelques régions du Pays Basque on accentue la dernière syllabe. Mais généralement, et presque partout, toutes les syllabes ont la même valeur, par exemple : az-kar-ta-su-na.

On n'emploie pas d'accent orthographique.

## L'Article.

Dans la langue basque il n'y a pas de genres, et les articles français LE, LA sont traduits au singulier par A et au pluriel par AK, quelquefois EK, s'il s'agit d'un sujet de verbe, mis à la fin des radicaux : de etche=maison, etchea=la maison, et etcheak=les maisons ; de gizon=homme, gizona=l'homme, de emazte=femme, emaztea=la femme ; emazteak=les femmes et gizonak=les hommes. Gizonak egin dute : les hommes l'ont fait.

## Prononciation.

Dans la langue basque on prononce comme on écrit. Toutes les lettres sont prononcées.

## Des Genres.

Il n'y a pas de genre en basque : l'homme bon=gizon ona, la femme bonne=emazte ona.

On met l'adjectif toujours après le nom : etche ederra=la belle maison ; neskatch ederra=la belle fillette.



## Relations Grammaticales.

<u>Suffixe</u>	<u>Signification</u>	<u>Equivalent français</u>	
k	celui qui fait l'action.	le, la	gizonak=l'homme.
ri	celui à qui l'on donne.	à, à la, au	gizonari=à l'homme.
ren, en	indique la possession.	de	gizonaren=de l'homme (après consonne EN)
rekin, ekin	en compagnie de.	avec	gizonarekin=avec l'homme (après consonne EKIN : Piarresekin=avec Pierre).
rentzat, entzat	destination.	pour	gizonarentzat=pour l'homme (après cons. ENTZAT).
rengatik	le motif.	pour	gizonarengatik=à cause de l'homme.
gabe	manque.	sans	gizonagabe=sans l'homme.
ko, go	localisation.	de	Donibaneko Eliza=l'église de Saint-Jean-de-Luz (après N ou L on met GO).
rat, erat	direction et point d'arrivée	vers, à	Endaiarat, Pariserat (après consonne ERAT).



raño limitation.

ar, tar, origine, provenance.

dar partisan de

jusqu'à

Donibaneraño=  
jusqu'à St-Jean-  
de-Luz.

Donibandar=de St-  
Jean-de-Luz.

Zuberotar = de la  
Soule.

(après N ou L  
on met DAR).

## Le Verbe.

AVOIR=ukhaitea.

J'ai=(nik) dut.

Tu as=(zuk) duzu.

Il a=(harek) du.

Nous avons=(guk) dugu.

Vous avez=(zuek) duzue.

Ils ont =(hek) dute.

J'avais=(nik) nuen.

Tu avais=(zuk) zinuen.

Il avait=(harek) zuen.

Nous avions=(guk) ginuen.

Vous aviez=(zuek) zinuten.

Ils avaient=(hek) zuten.

J'aurai=(nik) ukhanen dut

Tu auras=(zuk) » duzu.

Il aura=(harek) » du.

Nous aurons=(guk) » dugu.

Vous aurez=(zuek) » duzue.

Ils auront=(hek) » dute.



ETRE=izaitea.

Je suis=(ni) naiz.

Tu es=(zu) zare.

Il est=(hura) da.

Nous sommes=(gu) gare.

Vous êtes=(zuek) zarete.

Ils sont=(hek) dire.

J'étais=(ni) nintzen.

Tu étais=(zu) zinen.

Il était=(hura) zen.

Nous étions=(gu) ginen.

Vous étiez=(zuek) zinezten.

Ils étaient=(hek) ziren.

Je serai=(ni) izanen naiz.

Tu seras=(zu) » zare.

Il sera=(hura) » da.

Nous serons=(gu) » gare.

Vous serez=(zuek) » zarete

Ils seront=(hek) » dire.

Les verbes transitifs emploient comme auxiliaire le verbe  
AVOIR : je mange=(nik) jaten dut.

Les verbes intransitifs emploient comme auxiliaire le verbe  
ETRE : je tombe=(ni) erortzen naiz.









# LA LANGUE BASQUE

---

L'eskuara est la langue des basques.	Eskuara eskualdunen hizkuntza da.
Savez-vous la langue basque ?	Eskuaraz badakizu ?
Je veux apprendre la langue basque.	Eskuara nahi dut ikasi.
Est-ce facile de l'apprendre ?	Errech da ikastea ?
Ce n'est pas facile, mais on peut l'apprendre.	Ez da errecha, baina ikasten ahal da.
Plus facile que certains ne le croient.	Batzuek uste duten baino errechagoa.
Elle ne ressemble pas aux autres langues.	Bertze hizkuntzen iduririk ez du.
Beaucoup d'étrangers l'ont très bien apprise.	Arrotz hainitzek ederki ikasi dute.
D'abord il faut la volonté.	Lehenbizikorik behar dana nahikundea da.
Et puis après persévérer.	Eta gero jarraiki.
Alors vous l'apprendrez vite.	Orduan laster ikasiko duzu.
Je l'ai apprise un peu.	Puchka bat ikasi dut.
Je n'en sais encore que peu	Oraino guti dakit.
J'ai commencé à dire quelques mots.	Hitz zombaiten erraiten hasi naiz.

NOTA. — Les mots français espacés (langue) correspondent aux mots basques (hizkuntza) espacés.



Je ne la comprends pas bien  
Conversation.

Je parle la langue basque.

Je parlerai.

Parler.

Faire comprendre.

Un peu. Beaucoup. Peu.

Il faut être bien attentif.

La grammaire basque.

De quand date la langue basque ?

Elle est très ancienne,  
mais personne ne sait de  
quand elle date.

### En se rencontrant

Bonjour, monsieur.

Bonjour, madame.

Bonsoir.

Bonne nuit.

Etes-vous bien ; (dirigé à  
une personne)  
(à plusieurs)

Bien, et vous ? (dirigé à une  
personne)  
(à plusieurs)

Très bien, Dieu merci.

Comment se portent  
tous chez vous ?

Ils ont tous la santé.

Ez dut ongi aditzen.

Elhe-aldia. Elheketa.

Nik mintzatzen dut eskuara.

Nik mintzatuko dut.

Mintzatzea. Hitz egitea.

Adiaraztea.

Zerbait. Hainitz. Gutti.

Beharriak erne atchiki behar  
dire.

Eskual-hiztia.

Eskuara noizkoa da ?

Arras zaharra da, baina  
nihork ez daki noizkoa den.

### Elgar hatzemaitean

Egun on, jauna. Agur,  
jauna.

Egun on, andrea. Agur,  
andrea.

Arratsalde on.

Gau on. Gabon.

Ongi zare ?

Ongi zarezte ?

Ongi, eta zu ?

Ongi, eta zuek ?

Arras ongi, Jainkoari esker.

Nola dire zure etheko gu-  
ziak ?

Osasuna guziek ba dute.



J'ai beaucoup de plaisir.  
Ça me plaît beaucoup.  
Merci beaucoup.  
Qu'est-ce qu'il y a de nouveau ?

Il n'y a rien de nouveau.  
Votre père va bien ?  
Oui, très bien.  
Et maman ?  
Non, Monsieur, elle est malade.

Elle ne va pas bien.  
Vos fils et filles se portent-ils bien ?  
Et votre oncle et votre tante ?

L'oncle toujours jeune.  
La tante est morte.  
La pauvre !  
Je prends part à votre douleur.

Etes-vous resté malade ?  
Oui, je n'étais pas très bien.  
Et maintenant êtes-vous guéri ?

Oui, je me porte de nouveau très bien.

Bonjour, camarade.  
D'où venez-vous ?

De chez moi.  
Et où allez-vous ?

Me promener un peu.  
Je ne puis rester plus longtemps.

Nous irons ensemble.

Atsegin dut.  
Hori ongi zait.  
Milesker. Eskerrak hainitz.  
Zer da berri ?

Ez da deus berririk (grav. 1).  
Aita ongi da ?  
Bai, arras ongi.  
Eta ama ?  
Ez, Jauna, eri da.

Ez da ongi.  
Zure semeak eta alabak ongi dire ?  
Eta zure osaba eta izeba ?

Osaba bethi gazte (grav. 1).  
Izeba hila da.  
Gaizoa !  
Zure atsegabea zurekin naiz.

Eri egon zare ?  
Bai, ez nintzen hain ongi.  
Eta oraï sendatu zare ?

Bai, berritz arras ongi naiz.

Egun on, adiskidea.  
Nundik zathoz ?  
Nere etchetik.  
Eta norat zoazi ?  
Pochi bat ibiltzerat.  
Ez naiteke gehiago egon.

Elgarrekin joanen gare.



### En se séparant

Je viens vous dire au revoir.  
Est-ce que vous partez ?  
Pardonnez-moi si je ne suis  
pas venu plus tôt.

Asseyez-vous.

Non, je dois partir.

Et jusqu'à quand ?

L'année prochaine je re-  
viendrai.

Mes amitiés chez vous.

Mes souvenirs à tous les  
amis.

De votre part.

A la prochaine fois.

A tout à l'heure.

A demain.

Au revoir.

Puissiez-vous tous les trou-  
ver bien.

Un baiser à vos fils et filles.

Oui, je m'en vais.

Bonjour, portez-vous bien.

J'ai besoin de m'absenter.

Bon voyage.

### Au départ et à l'arrivée

Où allez-vous ?

Je viens de la maison.

Je m'en vais à la maison.

Montez.

Descendez.

Venez ici.

### Berechtean

Agur egitera natorkizu.

Ba zoazi ?

Barka ez banaiz lehenago  
ethorri.

Jar zaite.

Ez, joan behar dut.

Eta noiz arte ?

Heldu den urthean berritz  
ethorriko naiz.

Goraintziak zure etchean.  
(grav. 1).

Goraintzi hainitz lagungu-  
zieri.

Zure izenean.

Bertze aldi arte.

Sarri arte.

Bihar arte.

Berritz ikus arte.

Atchewan ditzazula etchean  
guziak ongi.

Musu bana zure seme-alaberi.

Bai, banoa (grav. 1).

Egun on, izan ongi.

Joan beharra naiz.

Ibil zaite ongi.

### Abiatzean eta heltzean

Norat zoaz ?

Etchetik heldu naiz.


Etcherat noa.

Igan zaite.

Jauts zaite.

Zato hunat.





Gravure 1



Entrez.

Sortez.

Partez d'ici.

Restez tranquille.

Voici notre chemin.

Où habite M. Oxobi ?

Au numéro quatre de cette  
rue.

Par où va-t-on au pont ?

Par là tout droit.

Vous n'êtes pas dans le bon  
chemin.

Où est la Mairie ?

Est-ce le chemin de l'é-  
glise ?

Oui, Monsieur, c'est la bonne  
route.

Bonjour.

## Questions et Réponses

Qui êtes-vous ?

Comment vous appelez-  
vous ?

Je suis Jean Bordachuri.

D'où êtes-vous ?

Je suis labourdin.

De quelle ville ?

De Saint-Jean-de-Luz.

Qu'est-ce que vous voulez ?

Me connaissez-vous ?

Tiens ! C'est vous ?

Ecoutez-moi.

Avez-vous entendu ?

Sar zaite.

Jalgi zaite.

Zoaz hemendik (à 1 personne)

Zoazte hemendik (à plusieurs).

Zaude geldirik (grav. 1).

Huna gure bidea.

Oxobi jauna nun bizi da ?

Karrika huntako laugarren  
etchean.

Nundik joaiten da zubirat ?

Hortik zuzen.

Ez zare bide onean.

Herriko Etchea nun da ?

Elizako bidea hau da ?

Bai, Jauna, hau da bidea.

Agur.

## Galdeak eta Ihardesteak

Nor zare ?

Nola duzu izena ?

Ganich Bordachuri naiz.

Nungoa zare ?

Lapurtarra naiz.

Zein herritakoa ?

Donibandarra.

Zer nahi duzu ?

Ezagutzen nauzu ?

To ! Zu zare ?

Adi nezazu.

Aditu duzu ?



Attendez-moi un moment.	Zaude aphur bat nere begira (grav. 1).
Je me souviens de quelque chose.	Zerbaitez orhoitzen naiz.
Vous avez bien fait.	Ongi egin duzu.
Comment? Quoi?	Nola? Zer?
Que dites-vous?	Zer diozu?
Je voudrais votre aide.	Zure laguntza nahi nuke.
Avec beaucoup de plaisir.	Gogotik.
Qu'est-ce que je puis faire pour vous?	Zer egin dezaket zuretzat?
Pardonnez-moi.	Barka zaidazu (grav. 1).
Tout ce que vous voulez.	Nahi duzun guzia.
Je vous remercie.	Esker hainitz.
Merci beaucoup.	Milesker hainitz.
Il n'y a pas de quoi.	Ez da zeren.
Peut-être.	Behar bada.
Ça ne se peut pas.	Ez ditake.
Je ne voulais pas dire cela.	Ez nuen hori erran nahi.
Ce n'est pas étonnant.	Ez da 'harritzeko.
Oui, certainement.	Bai, egiazki.
C'est vrai.	Egia da.
Je ne le crois pas.	Ez dut uste.
Quoi? Qui?	Zer? Nor?
Est-ce vrai?	Egia othe da?
C'est terrible.	Ikharagarri da.
Je ne sais que faire.	Ez dakit zer egin.
Vous avez bien fait.	Ongi egin duzu.
Vous avez mal fait.	Gaizki egin duzu.
Quel plaisir!	Hau zoriona!
Soyez le bienvenu!	Ongi ethorri!
C'est dommage!	Hanbat gaichto!
Je suis en colère!	Hasarre naiz!
Allez-vous en!	Zoaz hemendik!
Taisez-vous!	Zaude ichilik!



Que vais-je faire ?  
Cela n'est pas facile.  
Vous avez une bonne idée.

### L'heure

Quelle heure est-il ?  
Savez-vous quelle heure il est ?  
Quelle heure peut-il être ?  
Une heure.  
Deux heures.  
Trois, quatre heures.  
Cinq, six heures.  
Sept, huit heures.  
Neuf, dix heures.  
Onze, douze heures.  
Douze heures et demie.  
Douze heures et quart.  
Une heure moins le quart.  
Huit heures cinq.  
Une heure entière.  
Une demi-heure.  
Trois quarts d'heure.  
Je viendrai à trois heures.  
A midi sonnant.  
Venez à quatre heures.  
Huit heures vont sonner.  
Elles sonnent maintenant.  
C'est tôt.  
C'est tard.  
La montre marche bien.  
Elle ne marche pas bien.

Zer eginen dut ?  
Ez da errecha.  
Asmo ederra duzu.

### Orena, Ordua

Zer ordu da ? Zenbat orenak dire ?  
Ba dakizu zer ordu den ?  
Zer ordu izan ditake ?  
Oren bat.  
Bi orenak.  
Hiru, lau orenak.  
Bortz, sei orenak.  
Zazpi, zortzi orenak.  
Bederatzi, hamar orenak.  
Hamekak, hamabiak, eguerdi.  
Eguerdi eta erdi.  
Eguerdi eta laurden.  
Oren bat laurden guti.  
Zortziak eta bortz.  
Oren bat.  
Oren erdi bat.  
Hiru oren laurden.  
Hiru orenetan etborriko naiz.  
Eguerditan.  
Zato lau orenetan.  
Zortziek laster joko dute.  
Jotzen ari dire..  
Goiz da.  
Berant da.  
Erloia ongi dabila.  
Ongi ez dabila (grav. 1).



**Le Temps (pas atmosphérique)**

**Denbora**

L'année.	Urthea.
Un an.	Urthe bat.
Deux ans, trois ans.	Bi urthe, hiru urthe.
Un siècle.	Mende bat.
Une génération.	Gizaldi bat.
De génération en génération.	Gizalditik gizaldirat.
L'an passé, l'année dernière.	Jaz, joan den urthean.
Cette année.	Aurthen.
L'année prochaine.	Heldu den urthean.
Aujourd'hui.	Egun.
Cet après-midi.	Arratsaldean.
Ce soir.	Gaur. Gaur arratsean.
Demain.	Bihar.
Hier.	Atzo.
Après-demain.	Etzi.
Le surlendemain.	Etzidamu.
Le lendemain.	Biharamuna.
Les quatre saisons.	Lau urthearoak.
Le Printemps.	Udaberria, Bedatsa.
L'Eté.	Uda.
L'Automne.	Udazkena, Larrazkena.
L'Hiver.	Negua.
Janvier. Février.	Urtharrila, Otsaila.
Mars, Avril.	Epaila (Martchoa), Jorraila (Apirila).
Mai, Juin.	Ostaroa (Maiatza), Errearoa (Ekhaina).
Juillet, Août.	Uztaila, Agorrila.
Septembre, Octobre.	Buruila, Urria.
Novembre, Décembre.	Hazila, Neguila (Abendoa).
Un jour.	Egun bat.
La semaine.	Astea.
Une semaine.	Aste bat.



Un mois.  
Toutes les semaines.  
Les jours de la semaine.  
Lundi, Mardi.  
Mercredi, Jeudi.  
Vendredi, Samedi.  
Dimanche. Jour de fête.  
Jour de travail.  
Jour de semaine.  
La matinée, le matin.  
Le midi.  
L'après-midi.  
Le soir.  
La nuit.  
Le lever du soleil, l'aube.  
Le coucher du soleil, le crépuscule.  
Un moment.  
Bon moment.  
Mauvais moment.  
Pendant la nuit.  
Il fait nuit.  
Minuit.  
L'éternité.  
L'avenir.  
Le passé.  
La durée.

### La Nature

Dieu.  
Le Seigneur.  
L'Éternel.  
Le ciel.  
Le firmament.

Hilabete bat.  
Aste oroz, aste guziz.  
Asteko egunak.  
Astelehena, Asteartea.  
Asteazkena, Ortzeguna.  
Ortziralea, Larunbata.  
Igandea. Jai-eguna.  
Lan-eguna.  
Aste-eguna.  
Goizaldea. Goiza.  
Eguerdia.  
Arratsaldea.  
Arratsa.  
Gaua, Gaba.  
Goizaldea, Argiastea.  
Ilhantzea.

Aphur bat.  
Aldi ona.  
Aldi tcharra.  
Gauaz, gabaz.  
Ilhun da.  
Gauerdi, gaberdi.  
Bethikotasuna.  
Ethorkizuna.  
Iragana.  
Iraupena.

### Izadia

Jainkoa.  
Jauna.  
Bethierekoa.  
Zerua.  
Ortzea.



Ciel serein.	Orzgarbi.
Le nuage.	Lanhoa.
La terre.	Lurra.
Le soleil.	Iguzkia.
Les étoiles.	Izarrak.
L'étoile du matin.	Goizeko izarra.
La lumière.	Argia.
L'aube.	Argiastea.
L'ombre.	Itzala.
Sombre.	Ilhun.
Ténèbres.	Ilhunpea.
La lune.	Ilhargia, Argizaria.
Premier quartier.	Ilhargiaren gorapena.
Dernier quartier.	Ilhargiaren beherapena.
Nouvelle lune.	Ilhargi berria.
Pleine lune.	Ilhargi bethea.
L'humanité.	Gizadia.
La matière.	Gaia.
L'esprit.	Gogoa.
L'idée.	Ustea.
Naître.	Sortzea.
Vivre.	Bizitza.
Mourir.	Hiltzea.
L'homme.	Gizona.
La femme.	Emaztea, emaztekia.
L'enfant.	Haurra.
Mâle.	Ar.
Femelle.	Eme.

### **Le Corps Humain**

La tête.  
Le front.  
La figure.  
L'œil.

### **Giza-soina, Gorphutza**

Burua.  
Kopeta.  
Begitarte.  
Bergia.



Les sourcils.  
Les cils.  
Le nez.  
La bouche.  
La langue.  
La dent.  
La molaire.  
Le larynx.  
Le pharynx.  
Les joues.  
Les oreilles.  
Le cou.  
La poitrine.  
Le bras.  
Le dos.  
Le cœur.  
Le cheveu.  
La barbe.  
La main.  
La main droite.  
La main gauche.  
L'ongle.  
Les doigts.  
Le ventre.  
La chair.  
L'os.  
La cuisse.  
Le pied.  
Le genou.  
Le sang.  
La peau.

### Le Temps atmosphérique

Quel temps avons-nous ?  
Aujourd'hui très beau.

Bekhaina.  
Bekhileak.  
Sudurra.  
Ahoa.  
Mihia.  
Hortza.  
Hagina.  
Eztarria.  
Zintzurra.  
Mathelak.  
Beharriak.  
Lepoa.  
Bulharra.  
Besoa.  
Bizkarra.  
Bihotza.  
Bilhoa, Ilea.  
Bizarra.  
Eskua.  
Esku-eskuina.  
Esku-ezkerra.  
Beatza.  
Erhiak.  
Sabela.  
Haragia.  
Hezurra.  
Izterra.  
Oina, zangoa.  
Belhauna.  
Odola.  
Larrua.

### Eguraldia

Zer eguraldi dugu ?  
Egun arras ederra.







Hier il faisait mauvais.  
Il a plu beaucoup.  
Aujourd'hui il fait chaud.  
La nuit il va faire froid.  
Vous allez vous mouiller.  
Prenez le parapluie.  
Il fait lourd.  
Il va tonner.  
On voit des éclairs.  
Il commence à pleuvoir.  
Est-ce qu'il pleut ?  
Il pleut.  
Une grande averse.  
La pluie va cesser bientôt.

Le vent du nord.  
Le vent du sud.  
La brume.  
Le thermomètre.  
Il a monté jusqu'à trente-cinq  
Il est descendu jusqu'à quinze  
La neige.  
La gelée.  
Il gèle.  
Il fait bien froid.  
Le temps s'est adouci.

### Une Visite

Monsieur est-il chez lui ?  
Dites-lui que M. Etcheberri  
l'attend.  
Entrez.  
Je me réjouis de vous  
voir.

Atzo eguraldi tcharra zen.  
Euri hainitz egin du.  
Egun bero ari du.  
Gaur hotz eginen du.  
Bustiko zare (grav. 2).  
Euritakoa har zazu (gr. 2).  
Sapa da.  
Ortziak egin behar ditu  
Chimistak ageri dire.  
Euria hasten du.  
Euria ari othe da ?  
Euria ari da.  
Uhar handi bat.  
Laster euria geldituko da.  
(grav. 2).  
Iphar-haizea.  
Hegoa.  
Lantchurda, Lantzerra.  
Gironeurria.  
Hogoitamabortzerat heldu da.  
Hamabortzerat jautsi da.  
Elhurra.  
Izotza.  
Izotza ari da.  
Arras hotz da.  
Eguraldia epheldu da.

### Iklusaldi bat

Nagusia etchean othe da ?  
Errozu Etcheberri jauna he-  
men dela.  
Sar zaite.  
Atsegin dut zu ikhustiaz.



Asseyez-vous.	Jar zaite.
Que voulez-vous ?	Zer nahi duzu ?
Etes-vous bien ?	Ongi zare ?
Bien et vous ?	Ongi eta zu ?
Très bien.	Arras ongi.
Et votre femme et votre famille ?	Eta zure emaztea eta etche-koak ?
Tous en bonne santé.	Guziak osasunez beteak.
Vous venez rarement.	Bakhan etortzen zare.
Vous déjeunerez avec nous.	Gurekin bazkalduko duzu.
Voulez-vous prendre quelque chose ?	Zerbait hartu nahi duzu ? (grav. 2).
Merci beaucoup.	Eskerrak hainitz.
Je suis venu simplement vous saluer.	Bakharrik agur egitera ethorri naiz.
Restez encore un peu plus	Zaude oraino geicheago.
Aujourd'hui je n'ai pas le temps.	Egun ez dut astirik.
Je dois partir.	Joan behar dut.
D'ailleurs il est tard.	Bertzenaz ere berant da.
La prochaine fois je viendrai plus tôt.	Bertzaldian goizchago ethorriko naiz.
J'ai beaucoup de travail.	Lana hainitz badut.
Je viendrai demain ou après-demain.	Bihar edo etzi ethorriko naiz.
Je reviendrai un autre jour.	Bertze egun batez ethorriko naiz.
Mes meilleurs souvenirs à tous.	Goraintziak guzieri.
Bonjour, portez-vous bien.	Agur, izan ongi.
Au plaisir.	Iklus arte.



## L'âge

Quel âge avez-vous ?  
Seize ans.  
J'ai vingt-cinq ans.  
J'en aurai bientôt vingt-  
six.  
Vous êtes encore jeune.  
Je suis l'aîné.  
  
Vous êtes le plus jeune ?  
Votre père vit encore ?  
Oui et très alerte.  
Quel âge a-t-il ?  
Quatre-vingts.  
Il n'est pas d'aujourd'hui.  
Qu'il vive encore bien des  
années.

## L'argent

Un franc.  
La pièce de cinq francs.  
dix francs  
Trois sous.  
Un sou.  
La pièce d'un franc  
de deux francs  
La pièce de dix sous  
de deux sous  
L'or.  
L'argent.  
Le billet.  
Payer.  
Recevoir.

## Adina

Zer adin duzu ?  
Hamasei urthe.  
Hogoi ta bortz urthe ditut.  
Laster ñogoi eta sei iza-  
nen ditut (grav. 2).  
Gazte zare oraino.  
Gehiena naiz. Zaharre-  
na naiz.  
Gaztena zare ?  
Zure aita bizi da oraino ?  
Bai eta pizkor.  
Zer adin du ?  
Lauetan hogoi.  
Ez da egungoa.  
Luzaz bizi dadiela.

## Dirua

Libera bat.  
Bost liberakoa.  
Hamar liberakoa.  
Hiru sos.  
Sos bat.  
Hogoisosekoa.  
Berrogoisosekoa.  
Hamarsosekoa.  
Bisosekoa.  
Urnea.  
Zilarra.  
Diru-papera.  
Ordaintzea.  
Hartzea.



La dette.  
Le débiteur.  
Le créancier.

### Une Maison

Où habitez-vous ?  
Au numéro huit de la  
Grand' Rue.  
Etes-vous marié ?  
Je suis marié et j'ai deux  
fils et trois filles.  
Le fils aîné a vingt-quatre  
ans.  
Et le plus jeune douze.  
D'où est votre femme ?  
Elle est de Saint-Jean-de-Luz.  
Et comment s'habitue-t-  
elle dans cette ville ?  
Parce que nous avons une  
belle maison.  
L'intérieur.  
La façade.  
L'entrée.  
La porte.  
L'étage.  
La chambre.  
La fenêtre.  
La pierre.  
Le loquet.  
La cuisine.  
L'escalier.  
Les degrés.

Zorra.  
Zorduna (grav. 2).  
Hartzekoduna (grav. 2).

### Etche Bat

Nun bizi zare ?  
Karrika Nagusiko zor-  
tzigarren etchean.  
Ezkondua zare ?  
Ezkondua naiz eta bi  
seme eta hiru alaba ditut.  
(grav. 2).  
Seme zaharrenak hogoi  
eta lau urthe ditu.  
Eta gaztenak hamabi.  
Zure emaztea nungoa  
da ?  
Donibandarra da.  
Eta nola laketzen da hiri  
hontan ?  
Etche ederra dugulakotz.  
Barnea.  
Aintzina, aintzin-aldea.  
Sarbidea.  
Athea.  
Bizitza, estaia.  
Gela.  
Leikoa.  
Harria.  
Klisketa.  
Sukaldea.  
Eskallera.  
Mailak.



La couverture.  
Le drap.  
Le traversin.  
Le maître.  
La maîtresse.  
Le locataire.  
Les serviteurs.  
Le chef.  
La couturière.  
La femme de chambre.  
La fileuse.  
Le jardinier.  
La laitière.  
La nurse.  
L'ouvrier.  
Le portier.  
La servante.  
Le valet.  
Le salaire.  
Le château.  
La cabane.  
Le jardin.  
La fleur.

### Une promenade

Allons nous promener.  
Nous avons une belle ma-  
tinée.  
Où comptez-vous aller ?  
Là où vous voulez.  
Allons vers la montagne.  
Cet endroit est des plus  
jolis.  
On a une vue magnifique.

Estalgia, One-azala.  
Minisea.  
One-burutikoa.  
Etcheko nausia.  
Etcheko anderea.  
Etchetiarra.  
Sehiak.  
Buruzagia.  
Joslea.  
Gelaria.  
Irulea.  
Baratzezaina.  
Esneketaria.  
Haurzaina.  
Langilea.  
Athezaina.  
Neskatoa.  
Muthila.  
Saria.  
Gaztelua.  
Etchola.  
Baratzea.  
Lorea.

### Ibilaldi bat

Goazen ibiltzerat.  
Goiz ederra dugu.  
Norat nahi duzu joan ?  
Nahi duzun tokirat.  
Goazen mendi-alderat.  
Toki hau ederrenetarik da.  
Ikhustoki ederra da.



Ici nous avons La Rhune  
derrière nous.

Une belle montagne et très  
haute.

La plus grande d'ici.

De là-bas on voit des vil-  
les et des campagnes.

A gauche le chemin de  
fer.

Le train passe par ce grand  
pont.

Ceci est un joli chemin.

Nous avons en face une  
forêt ombragée.

Descendons à la route.

Ici nous sommes près du  
village.

### En chemin de fer

La gare.

Où est le guichet ?

Donnez-moi un billet de  
troisième jusqu'à Ustaritz.

Aller et retour.

Combien est-ce ?

Vingt francs.

Ce train a des premières, des  
secondes et des troisièmes.

La locomotive.

Quand part le train de  
Bayonne ?

Il part de suite.

Gure gibelean Larrun  
dugu.

Mendi gora eta ederra.

Hemengo handiena.

Handik ageri dire hiri eta  
baserriak.

Ezkerrerat burdin-bidea.

Zubi handi hortarik treina  
iragaiten da.

Bide pollita da hau.

Gure aintzinean oihan i-  
tzaltsu bat dugu.

Bide zabalera jauts gai-  
ten.

Hemendik hiri ondoan  
gare.

### Burdin-bidean

Gelditokia. Geltokia.

Tchartel-leihoan nunda ?

Emadazu hirugarreneko tchar-  
tel bat Ustaritzeraño.

Joan-ethorri.

Zenbat da ?

Hogoi libera.


Trein hunek baditu lehenbizi-  
koak, bigarrenekoak eta hi-  
rugarrenekoak.

Indargurdia.

Baionako treina noiz doa ?

Berehala (grav. 2).





Gravure 3



Montons.

Fermez aussi la fenêtré.

Il y a trop de vent.

Ici on ne peut pas fumer.

Pardon, cette place est à moi.

Est-ce qu'il s'arrête à Cambo?

Deux fois, parce qu'il y a deux gares.

Il a sifflé.

Le contrôleur vient.

Donnez-lui le billet.

Où sommes-nous ?

A Bidart.

Combien de temps s'arrête-t-il ?

Une minute.

Je vais descendre.

Ne descendez pas, nous partons.

Ne penchez pas la tête en dehors.

Nous avons maintenant un tunnel.

Est-il long ?

Quelle vitesse !

Nous allons au moins à 80 kilomètres.

Ce pont traversé, nous sommes à Bayonne.

Nous sommes arrivés.

Descendons.

Où avons-nous la sortie ?

C'est cette porte.

Iragan gaitezen.

Athea hets zazu !

Haize hainitz bada.

Hemen ez da erretzen ahal.

Barkatu, toki hau nerea da.

Kanbon gelditzen da ?

Bi aldiz, bi gelditoki direla-kotz.

Chistu egin du.

Chilatzalea heldu da.

Tchartela emozu.

Nun gare ? Nun othe gare ?

Bidarten.

Zenbat gelditzen da ?

Minuta bat.

Jausten naiz.

Ez jauts, bagoazi.

Ez athera burua.

Mendizilo edo tunel bat dugu orai.

Luzea othe da ?

Zer lasterra !

Gutienetik lauetan hogoi kilometra egiten ditu.

Zubi hau iragan eta Baionan gare.

Helduak gare (grav. 3).

Jauts gaiten.

Athea nun othe dugu ?

Athe hau da.



## En visitant une ville

Quelle grande gare !  
Allons prendre une auto.

A quelle auberge irons-nous ?

Nous irons à Atherbea.  
Quelle ville propre !  
Ce fleuve c'est l'Adour.  
Ici il se jette à la mer.  
Ce pont est long.  
Cette Eglise est neuve.  
Voici la Cathédrale.

Maintenant allons au port.  
Il y a aujourd'hui beaucoup de bateaux.

Ces petits sont des bateaux de pêche.

A gauche nous avons la plage.

Elle a le sable fin.  
Certains nagent à merveille.

Oui, il fait chaud.  
Cette grande maison c'est le Casino.

Il a en face de beaux jardins fleuris.

Il y a ici beaucoup de belles maisons.

Cette large rue est la plus belle.

Une école.

## Hiri bat ikhustean

Hau gelditoki ederra !  
Goazen beribil bat hartzerat.

Zein ostatutarat joanen gare ?

Atherbera joanen gare.

Hau hiri garbia !

Ibai hau Adour delakoa da.  
Hemen itsasoan sartzen da  
Zubi hau luzea da.

Eliza hau berria da.

Huna hemen Eliz-nagusia.

Orai goazen porturat.

Egun bada nainitz untzi.

Untzi ttipi horiek arraintza-koak dire.

Ezkerraldean ondartzea dugu.

Ondar chehea du.

Batzuek ederki ba dakite igerika.

Bai, bero da.

Etche handi hau Kasinoa, Jaietchea da.

Aintzinean baratze eder, loretsuak ba ditu.

Bada hemen hainitz etche eder.

Karrika zabal hau ederrena da.

Ikastetche bat.



Une caserne.  
Une pharmacie.  
L'hôpital.  
Un magasin.  
Le restaurant.  
A qui est cette maison ?  
L'électricité.

### En mer

Le bateau.  
La vapeur.  
La force de la vapeur meut  
ce bateau.  
La mer est calme.  
La mer est houleuse.  
Il y a de grandes va-  
gues.  
Etes-vous sujet au mal de  
mer ?  
Oui, beaucoup.  
Bientôt nous sommes en  
pleine mer.  
Dans cette maison de la mon-  
tagne, c'est le phare.  
A gauche nous avons la  
côte de Biscaye.  
On voit beaucoup de bâ-  
teaux de pêche.  
L'entrée du port est devant  
nous.  
Il y rentre de grands  
bateaux.  
Plus grands qu'à Saint-  
Sébastien.

Gudarietche bat.  
Sendagaitegi bat.  
Eritegia.  
Saltoki bat.  
Ostatua.  
Norena da etche hau ?  
Tchimistindarra.

### Itsasoan

Untzia.  
Ur-lanhoa.  
Ur-lanhoaren indarrak untzi  
hau ibiltzen du.  
Itsasoa ezti da.  
Itsasoa gaichto da.  
Uhain handiak ba dire.  
(grav. 3).  
Buru-choratzen zare ?  
Bai, hainitz.  
Laster itsas zabalean  
gare.  
Mendi-etche hortan itsas-  
argia da.  
Ezkerraldean Bizkaiko itsas-  
bazterra dugu.  
Arrain-untzi hainitz i-  
khusten da.  
Portuaren sartzea aintzi-  
nean dugu.  
Untzi handiak ere sar-  
tzen dire.  
Donostian baino handia-  
goak.



Il est agréable de se promener en mer calme.

De ce côté-ci il y a beaucoup de poissons.

Oui, et excellents.

Le capitaine du bateau.

Le marin.

Le pêcheur.

Maritime.

Nous retournons.

Nous allons vers Bayonne.

Bientôt nous y sommes.

Nous avons fait une belle promenade.

Je n'ai pas souffert du mal de mer.

La pêche.

Les filets.

Le hameçon.

### L'Auberge

Avez-vous de la place pour nous ?

Oui, Monsieur, nous en avons.

Il nous faut trois chambres.

Propres et agréables.

L'eau froide, l'eau tiède ?

Vous les avez ici.

Combien par jour et par personne ?

C'est cher :

C'est bien.

C'est bon marché.

Celle-ci est trop petite.

Gocho da itsas eztian ibiltzea.

Alde huntan arrain hainitz bada.

Bai, eta onak.

Untzi-aintzindaria.

Itsasgizona.

Arraintzalea.

Itsastarra.

Gibelerat goazi.

Baionarat buruz goazi.

Laster helduak gare.

Ibilaldi eder bat egin dugu.

Ez naiz buru-choratu.

Arraintza.

Sareak.

Amua.

### Ostatua

Guretzat tokirik ba othe duzu ? (grav. 3).

Bai, jauna, badugu.

Hiru gela behar ditugu.

Garbiak eta gochoak.

Ur hotza, ur ephela ?

Hemen dituzu.

Zenbat bakotchak eguneko ?

Khario da.

Ongi da.

Merke da.

Hau ttipiegi da.



Celle-ci par contre trop grande.

Celle-ci est suffisante.

Nous resterons quatre ou cinq jours.

Le lit.

Les draps de lit.

Les couvertures de laine.

Le vase de nuit.

La table de nuit.

L'oreiller.

La cuvette.

La fenêtre. Ouverte. Fermée.

La lumière.

La sonnette.

A partir de quelle heure pouvons-nous manger ?

A partir de midi.

Qu'est-ce qu'il y a à manger ?

Voici le menu.

Et le déjeuner ?

Quand vous voudrez.

Si vous le voulez on vous le portera dans votre chambre.

Demain à huit heures le café au lait pour moi.

Pour moi du lait seul.

Il faut nous réveiller de bonne heure.

Pour nous lever plus vite sonnez à six heures.

Le réveil-matin.

A quelle heure le train pour Hendaye ?

Bertze hau berritz handiegi.

Hau nahikoa da.

Lau edo bortz egun egonen gare.

Ohea.

Mihiseak.

Artilezko estalkiak.

Gau-untzia, Kutchua.

Gau-mahaina.

Bururdia.

Ur-untzia.

Leiho, Idekia. Hetsia.

Argia.

Chilintcha.

Noiztik jaten ahalko dugu ?

Eguerditik harat.

Zer da jateko ? (grav. 3).

Huna hemen jaki-izendegia.

Eta gosaria ?

Nahi duzunean.

Nahi baduzu zure gelara eramane zaitzu.

Biar goizean kafe-esnea neretzat.

Neretzat esne hutsa.

Goiz atzar-arazi behar gaitutzu.

Lehenago jeikitze seietan dei gatzazu.

Iratzar-orena (grav. 3).

Endaiako treina noiz othe dugu ?



Chaque demi-heure.  
Et pour revenir ?  
De même.  
Nous partirons demain  
soir.  
Dormez bien.  
A demain.  
Avez-vous bien dormi ?  
Très bien.  
Quelle heure est-il ?  
Six heures.  
Voulez-vous le petit dé-  
jeuner ?  
Vous êtes matinal.  
Oui, je suis habitué ainsi.  
Je veux prendre un bain.  
Donnez-moi la serviette.  
Donnez-moi le petit déjeuner.  
Pour moi un chocolat.  
Donnez-moi un petit pain.  
Du sucre.  
Si quelqu'un vient me de-  
mander, dites-lui que je suis  
sorti.

### Les Jeux

Les jeux basques.  
Le jeu de pelote est très beau.  
Digne d'être vu.  
Le Pilotari.  
A main nue.  
A chistera.  
Le gant.  
Joko-garbi (jeu classique).

Orenerdi guziz.  
Eta itzultzeko ?  
Bardin.  
Bihar arratsean joanen  
gare.  
Ongi lo egizu.  
Bihar arte.  
Ongi lo egin duzu ?  
Arras ongi.  
Zer oren da ?  
Sei orenak.  
Gosaldu nahi duzu ?  
